

Salto!

Udalerrri euskaldunetako gazteentzako udalekuak

Ekainaren 27tik uztailearen 3ra UEMAK antolatutako udaleku ibiltarian 14-18 urte bitarteko gazteekin lan egiteko aisialdiko begiraleak eta sukaldariak behar dira. Bidali curriculumak arnasguneak@uema.eus helbide elektronikora martxoaren 4a (ostirala) baino lehen, eta UEMAK kudeatuko du prozedura, Jauzika Heziketa Elkartearekin.

Bi lekutatik abiatuko da udalekua, talde erdia Tolosatik eta beste erdia Etxarri Aranaztik. Bukaeran guztiak Leitzan elkartuko dira eta han pasako dituzte azken lau egunak. Udalekua **ekainaren 27an hasi eta uztailearen 3an** bukatuko da.

Ondorengo jakintzak baloratuko dira:

- Begirale titulua izatea.
- EGA edo bere baliokidea izatea.
- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea edo burutzen egotea.
- Lan eskarmentua antzeko lanetan.
- Euskararekiko sentsibilizazioa
- Taldean lan egiteko erraztasuna.

Ibilbideari buruzko informazioa:

Tolosatik Leitzara:

Ekainak 27: Tolosa-Alkiza

Ekainak 28: Alkiza-Leaburu

Ekainak 29: Leaburu-Berastegi

Ekainak 30: Berastegi-Leitza

Ekainaren 30etik uztailearen 3ra: Leitza

Etxarri Aranaztik Leitzara:

Ekainak 27: Etxarri Aranatz-Larraun

Ekainak 28: Larraun

Ekainak 29: Larraun-Basaburua

Ekainak 30: Basaburua-Leitza

Ekainaren 30etik uztailearen 3ra: Leitza